



Txotx garaia, umorez blaituta

Kopuruz, iaz baino gutxiago — 1,2 milioi litro Euskal Sagardoa jatorri izenaren barruan —; baina izatez, izaera handikoa, iazkoa baino alkohol graduazio handixeagokoa. Halakoa izango da aurtengo sagardoa. Sagardoa-ren sektoreak agerraldia egin zuen asteartean Donostian, sagardo denboraldia aurkezteko, eta Jon Plazaolak eta Aitziber Garmendiak ohiko txotx irekitzea egin zuten herenegun, Astigarragako Alorrenea sagardotegian —irudian—. Aurretik, sagarrondo berri bat landatu zuten Astigarragako Sagardoetxeko sagastian, JON URBE / FORU